



Andoain, San Juan jaietarako prest

Ekainaren 23an hasi eta 27ra bitarte Andoain herriko jaietan murgilduko da / 2-9



GOIBURU GOLF CLUB

ERRESERBAK 943 30 08 45

JAIETAN ONDO PASA



Maizorriko zenbait kide 2015eko Santa Krutz jaietan. Zutik, Miren Lopez de Munain, Extebe Lopez de Munain, Juan Lopitz, Unai Arberas, Oscar Mateos, Juan Godoy eta Joxe Caballero. Makurtuta: Itziar Jauregi, Larraitx Otamendi, Jon Urtasun, Itziar Lopez Etxezarreta, Jon Etxeberria eta Josu Olazabal. **AIURRI**

Maizorriko txalapartarien eskutik pregoia

MIREN LOPEZ DE MUNAIN MAIZORRI TXALAPARTA ESKOLA

Eskolaren eskutik dator aurtengo pregoia eta jaien hasierako txupinazoa. Kideak azaldu dizkigu pregoiaren, elkartearen eta txalapartaren gaineko hainbat kontu

Xabier Lasa ANDOAIN
Nola hartu duzue pregoilari gisa zuek izendatzea?

Ilusioa egin digu, ederki poztu gaitu! Eta dena esatera, ezusteko handia ere eragin digu izendapenak, izan ere, hautagaien zerrendan errespetu eta miresmena eragiten duten pertsonak eta elkarteak ageri baitira, Andoingo herriari herrigintzaren eta kulturgintzaren arlotan egundoko ekarpena egiten diotenak direla, alegia. Guztiek soberan eginak dauzkate merezimenduak herritarren aitortza publikoa jasotzeko.

Guk esan dezakeguna da oso eskertuta sentitzen garela izendapen prozesuan parte hartu duten hautagaien proposatzailleen edo Jai Batzordeko elkar-

teekin, gurekin gogoratu direlako. Eta batez ere, guztiei eskerrak eman behar dizkiegu pregoiaren ekintzak lagun dezakeelako gurea bezalako elkarre bat zein txalaparta bera ikusgarriagoa izan daitezen.

Pregoa nondik norakoa izango den, zerbait aurreraterik bai?

Gure mezua ahalik eta motzena, eta aldi berean, bixi-bixia izan dadin saiaturko garela, gehiago ezin dugu aurreratu. Esan beharrik ez dago ohore bat dela zure herriko jaien hasiera ofizialean protagonista bilakatzea hala nahi izan dutelako Jai Batzordeko kideek, eta alde horretatik, gertakizunak eskatzen duen mailari eusten saiaturko gara. Une iritsi bitartean, herrikideei gonbitea luzatzen diegu Goikoplazara bertara daitezen, pregoiaz gain festa giroko kalejirak, Soka Dantza, Salbe Gorena eta abar ospatuko baitira.

“Herriko festetan sustatzaile era partehartzaile izateagatik” eta “txalaparta kalera ateratzeagatik” izan zarete izendatuak, besteak beste...

Txikia da gure taldea, baina bere xumetasunean, orain 20 urte jaio zenetik, ahalik eta txukunen saiatu izan gara txalapartaren soinu eta kultura zabaltzen, herrikoitzen. Herriko jai eta ospakizun desberdinetan gure ekarpena egiten ahalegindu izan gara beti, batetik, herriko elkarteek antolatu ohi dituzten ekimenetan parte-hartuz, eta bestetik, geuk antolatuz kale agerraldiak Sanjuanetan, Santakrutzetan edo gainerako jaietan. Kaleko presentzia horietan, elkarteak kideek txalaparta erakustalditxoak egiteaz gain, mezu argia zabaltzen diegu herritarrei, gazte zein helduei: “hurbildu gugana, hartu maki-

AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus

ikastolen elkartea

*San Joanetan,
mingaina euskaraz jarri dantzari.*

Aterpe
JAIETXEA

Goikoplaza 7 - ANDOAIN
943 117 986 - 695 700 717

Gora Sanjuanak!

lak eta probatu, erreparorik gabe!”.

Gainerakoan, urtean zehar, txalaparta ikastaroak edo tailerrak antolatu ohi ditugu, hasi berriei nahiz oinarri bat jada badaukaten horiei begira. Alde horretatik, berriro luzatuko nioke mezua txalapartak interes pittin bat pizten dion horri: “zatoz eta probatu!”. Argi dagoena da makilak eragin arte nekez harrapatuko diozula puntua txalapartari. Izan ere, bizitzako hainbat arloetan bezalatsu, txalapartarekin ere gauza bat baita besteek egiten dutena ikustea, eta bestea zeu aritzea.

Nola ospatuko dituzue Sanjuanak, aurten?

Pregoiak gain, Kantu Kalejirako taldearekin batera modu zuzenean hartuko dugu parte jaietan, eta hortik aurrera, edozein andoaindarren antzera gozatuko ditugu.

Hori bai, aipatuko nuke, guretzat, hunkigarria suertatu ohi dela San Juan suaren inguruko ospakizun guztia, eta batez ere ikusita txalapartak nola hartzen duen protagonismo berezia. Izan ere, aspaldiko urtetan, da Zuaznabar familiaren eskutik txalapartaren hotsa udaletxeko balkoitik Goikoplazan zabaltzen da. Mari Karmen Zuaznabar eta bere seme Pello Uranga txalapartariak dira horren eragileak; familiatik datorkie tradizioa, beren aurrekoa izan baitzen Pello Zuaznabar, Lasarten jaio eta Andoainen bizi izan zen txalapartari famatua. Esan daiteke Pello eta Migel anaiek eutsi ziotela txalapartaren tradizioari, eta bikote horri esker bizi-iraun duela geroztik. Alde horretatik, txalapartari eta txalaparta zale guztiontzat ezinbesteko erreferentzia da familia hori.



Maizorriko zenbait kide 2016ko San Juan jaietan. Jon Etxeberría eta Juan Godoy txalaparta jotzen, eta Ekaitz Olló *Tolo* txalaparta garraiatzeko antolatu zuten bizikleta ibiltariarekin. AIURRI

Elkartearen 20. urteurrena ospatzekotan zabilazate.

Bai, iraila-urrirra begira gabilta buru-belarri antolaketa lanetan. Maizorri elkartearen 20. urteko historia ia ehun pertsonen osatu dute nola edo hala, eta errealitate hori jaso nahi du Basteron prestatuko den erakusketak. Baina aldi berean, edo-eta batez ere, txalaparta zer nolako soinu-tresna den eta bere historia, jatorria, bilakaera... azaltzen duen erakusketa egiteko asmoa dago. Horrekin batera, urriaren 1ean, egun osoko ospakizuna lotzen gabilta. Aurrerago zehaztuko dugu guztia.

Zein egoeratan ikusten duzue txalaparta, Andoainen nahiz Euskal Herrian?

Ez dago erraza erantzuten! Andoainen funtzionatzen du elkarte sustatzaile batek, eta berdin inguruko zenbait herrietan...

Baina orohar, gabeziak sumatzen dira transmisioaren eta zabal-kundearen arloetan. Oraindik orain, esate batera, gazte lokalean tailerra antolatu genuen gazteekin, eta oso esperientzia polita suertatu zen guretzat. Konturatzen gara gazteentzat interesa pizten duen soinu-tresna dela txalaparta, baina gero, ideia hori gizarteratzeko garaian, ezintaz sumatzen da...

Bigarren mailako instrumentutzat hartzen segitzen da normalki, beste instrumentuen laguntzaile gisa, edo edozein motatako ospakizunetan osagarri gisa. Kostatzen ari da bakarkako soinu-tresnatzat jotzea, nortasun propioa duena, indartsua... Gizartean, oraindik ere nolabait teko statusa, indarra, ospea edo dena delakoa falta zaiola ematen du. Azken hamarkadetakoa erreallitateari erreparatzen badiogu,

ordea, ez luke hala izan behar. Ikusi besterik ez dago, egundoko eboluzioa bizitu izan du, eta era guztietako txalaparta mota ikus daitezke plazan, egun: egurrezkoak, burnizkoak, kristalezkoak, harrizkoak... Azken urtetan, Oreka TX eta beste zenbait taldek argi erakutsi dute noraino iritsi litekeen txalaparta irudimenez eta trebeziak esploratuz gero, edo zenbateraino den irekia eta moldagarria edozein proposamen moderno gauzatzeko.

Maizorri hitzaren esanahia:

Arto-landarearen hostoa da maizorria. Txalaparta soinu-tresna, tradizioz, lau makilek, bi saskiek (ahoz behera jarrita) eta zurezko oholek osatu izan dute, funtsean. Bada, saskien gainean eta oholen azpian, bi maizorri jarri izan dira. Hala transmititu izan zuten erakutsi izan zuten.

Herriko elkarte eta taldeen ekarpena herriko jaietan

Xabier Lasa ANDOAIN

Honako herriko elkarte edo talde hauek hartu dute parte aurtengo San Juan jaien antolakuntzan:

- Olagain Txistulari Elkartea.
- Gora Kaletxiki Banda.
- Andoaingo Trikitilari Taldea.
- Alberto Agirre Abesbatza.
- Gazteleku Pilota Eskola.
- Urki Dantza Taldea.
- Axeri Dantza Elkartea.
- MaizorriTxalaparta Eskola.
- Agustin Leitza Elkartea (danborrada).
- Agustin Leitza Xake Taldea.
- Andoaindarra Elkartea (danborrada).
- Ongietorri Elkartea.
- Punttuka Bertso Eskola.
- Kantu Kalejira.
- Azelain Ballet Elkartea.
- Klaap Dantza Eskola.
- Bakartxo & Joseba Dantza Eskola.
- Lebiton Buruhandi eta Erraldoien Konpartsa.
- Ontza Elkartea.
- Andoaingo Artisauen Taldea.
- Auzoetako Jai Batzordeak.
- Andoaingo Txirrindulari Eskola.
- Zumeatarra Atletismo Elkartea.
- Aita Larramendi ikastola eta Ondarreta eta La Salle-Berrozpe ikastetxeak (danborrada).
- Udal Musika Eskolako Banda.
- Udal Musika Eskolako Abesbatzak (gazte eta helduak).
- Udal Musika Eskolako Eskusoinu Taldea.

BRIKO GOROS
Gora Sanjuanak!

GOROSTIDI Burdindegia

Kale Nagusia, 3 Andoain

620 881 472

www.brikogoros.com

S2 SALKIN
bertatik bertara

Ondo pasa Sanjuanetan!

ANDOAINGO MERKATARIAK

AURTENGO JAI EGITARAUA

EKAINAK 22

ASTEAZKENA, 22

18:30 Triana kultur elkartearen argazki-erakusketa ikusgai jarriko dute. Tourseko San Martin elizako arkupeetan.

EKAINAK 23

OSTEGUNA, 23

17:30 Ping pong txapelketa Agustin Leitza Plazan.

18:00 Sanjuanetako kartel lehiaketako sari banaketa ekitaldia Goikoplazan.

18:45 Kalejira ezberdinen amaiera Goikoplazan: Gora Kaletxiki Txaranga, Trikitilariak, Udal Musika Eskolako eskusoinu taldea.

19:00 Maizorri Txalaparta elkartearen pregoia Udaletxeko balkoitik eta jaien hasierako txupinazoa. Segidan Gora Kaletxiki txarangak Luis Fracaren "Andoain" musika pieza joko du.

19:30 Alberto Agirre abesbatza eta udal musika eskolako abesbatza gazte eta helduen kontzertua elizan.

20:00 Salbe Gorena San Martin elizan Alberto Agirre eta udal musika eskolak kantatua.

20:00 Sanjuanetako paleta goma txapelketa. Partidak Arrate pilotalekuan.

20:15 Alkatearen eta udalbatzaren Soka-dantza Goikoplazan.

21:30 Olagain txistulari elkartearen kalejira San Juan zortzikoa joz. Ibilbidea: Etxeberrieta, Zumea, Kale Nagusia, Goikoplaza.

22:30 Suziri, txalaparta eta kanpai-errepikarekin San Juan sua. Ondoren, herritarren suaren inguruko dantza eta emanaldia. Partaideak: Alberto Agirre eta Udal Musika Eskolako abesbatzak, Udal Musika Eskolako banda, Olagain txistulari elkarte eta Urki dantza taldea.

22:45 Agustin Leitza elkartearen danborrada. Agustin Leitza elkartetik Goikoplazara hurbilduko dira. Jarraian honako ibilbidea egindo dute: Kaletxiki, Arrate plaza, Pio Baroja, Goikoplaza, Joxe Mari Iturzaeta eta Agustin Leitza kaletik igaroko dira.

23:30 Egan musika taldea Goikoplazan.

00:00 Zetak taldearen kontzertua Nafarroa Plazan.

01:30-03:30 Zetak amaituta, Oihan Vega disko-jartzaileak segida emango dio gauari.



Axeri-Dantza San Juan egunean. AIURRI

EKAINAK 24

OSTIRALA

09:15 Diana dultzaineroekin.

10:30-14:00 Artisautza feria Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean.

11:00 - 13:00 Harritz Herri harri tailerra eta buztin tailerra Goikoplazan.

11:00 Alberto Agirre Abesbatza meza nagusian abestuko du, San Martin parrokian.

12:00 Axeri-Dantzarien emanaldia Goikoplazan.

13:15 Kontzejupeko finalak.

13:15 Udal Musika Eskola Bandaren kontzertua Goikoplazan.

17:00 - 20:00 Artisautza feria Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean.

17:30 Herri Kirolak Goikoplazan. Aizkoran: Laiene Pikabea-Nerea Sorondo (Euskadiko txapelduna). Duatloia: Andoni Iruretagoiena (Izeta VI) Aratz Mugerzaren aurka. Harrijasotzen: Mikel Lopategi (Urra) (Euskadiko Txapelduna) eta Udane Ostolaza. Aizkoran: Mikel Larrañaga (Gipuzkoako Txapelduna) eta Aratz Mugerza - Iñaki Azurmendi eta Andoni Iruretagoiena (Izeta VI). Lastoa altxatzen: Jon Loiola. Eguraldi txarrarekin Allurralde kiroldegian.

18:00-21:00 Distopia Elketrotxarangarekin kalejira.

18:30 Panoli kabareta, de Ganso & Cia konpainiaren ikuskisuna. San

Martin erretore etxe aurreko belartzan. Eguraldi txarrarekin Makaldegiko estalpean.

19:30 Bertso saioa Goikoplazan: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Amets Arzallus, Onintza Enbeita eta Uxue Alberdi. Gaijartzailea: Unai Ormaetxea. Eguraldi txarrarekin, La Sallen.

21:30 Herriartekoen arteko desafio: Andoain (Gipuzkoa) - Zestao (Bizkaia). Larruzko paleta eta pala motza.

22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.

22:30 Dukkha Nafarroa plazan.

22:45 Gozategi taldea zuzenean ariko da Goikoplazan.

00:00 Doctor Deseo taldearen kontzertua Nafarroa plazan.

Enkarguak jasotzen ditugu

943 593 777

Zumea 18, ANDOAIN

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

EKAINAK 25

LARUNBATA

09:00-14:00 Colombaire usakume tiroketa Pagamendin, San Juan Saria. Javier Portubururi omenaldia.

10:30 Buruhandi eta erraldoi konpartsen topaketa. Ibilbidea: Zumea plazatik Goikoplazaraino. Partaideak: Beasain, Elgoibar, Vitoria-Gasteiz, Villabona eta Andoain.

10:30 Pilotako finalak Arrate frontoian. Umeen eta gazteen eskuzko finalak.

12:00 Kantu Kalejira Maizorriko txalapartariez lagunduta ibiliko da kalez kale Goikoplazan hasita.

12:30 Nesken Berria Pilota txapelketako finalak.

13:00 Puro relajo musika taldearen kontzertua Goikoplazan.

14:30 Bazkaria Goikoplazan: Txuleta Jana. Menuaren prezioa (ekainak 19 arte) Helduak 25 euro eta 12 urte arte 10 euro. Egunean bertan helduak 35 euro. Menua: txorizoa; entsalada mistoa, txuleta, gazta-menbriloa, intxaurrek. Sagardoa, ardoa eta ura. Eguraldi txarrekin La Salle-Berrozpe Ikastetxeko patioan.

17:00 Pixie & Dixie txaranga ibiltaria.

16:30 Pilota partidak Arrate frontoian. Zesta puntako jaialdia: Hasiberrien kinielak; alebiren kinielak; infantilen finala; jubelinen finala eta Sanjuanetako I. Emakumeen zesta punta txapelketako finala.



Txuleta-jatea, ekainaren 25ean. AIURRI

17:30 XVII. Bizikleta Festa Goikoplazan. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa ekarriko ditu. Opariak izango dira parte hartzen duten guztientzat. Bi urtetik hamabi urte bitarteko haurrek parte hartzeko aukera izango dute. Izen ematea, proba hasi baino 30 minutu lehenago egingo da. Eguraldi txarrekin Ondarreta ikastetxean.

19:00 Andoaindarra elkartearen danborrada. Ibilbidea: La Salle Etorbidea, Kale Nagusia, Agustín Leitza, Rikardo Arregi, Arteta, Nafarroa Plaza, Pio Baroja, Goikoplaza.

22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan

23:30 Remember Queen taldearen kontzertua Goikoplazan.

23:30-03:00 Sofia Gabanna eta Foyone-ren kontzertuak Nafarroa Plazan.

EKAINAK 26

IGANDEA

10:30 Sanjuanetako XIX. Bikoteen Kross mistoa. Irteera eta helmuga Pio Baroja kalean ipiniko dute. Bost kilometroko ibilbidea herrigunean barrena.

11:00 Udal Musika Eskolako ikasleen Mugaz taldea, konbo gaztea eta Azelain ballet elkartearen musika eta dantza emanaldia Goikoplazan.

11:00-13:00 Xake partidak Goikoplazan. Eguraldi txarrekin elizaren arkupetan.

12:00 Olagain txistulari banda eta lagunak Goikoplazan.

16:00 Junior mailako XXVII. Gipuzkoako txirrindularitza Itzuliaren irteera Goikoplazatik.



Haur danborrada, ekainaren 27an. AIURRI

18:15 Junior mailako lasterkarien helmuga Goikoplazan.

19:30 Astrolabium teatroa Goikoplazan.

20:30 Mikel Moreno zuzenean Nafarroa Plazan.

22:45 Caballer Pirotekniaren Su artifizialak Ubitarte zelaitik.

23:30 - 02:00 Tremenda Jauria zuzenean Nafarroa Plazan.

EKAINAK 27

ASTELEHENA

11:30 - 13:30 Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak eta ludoteka. Euriarekin Ondarretan.

13:30 Agintarien harrera laurogei urteko aitona-amonei Udaletxe aurrean. Jarraian bazkaria.

17:00-19:30 Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak eta ludoteka. Eguraldi txarrekin Ondarreta ikastetxeko patioan.

18:00 Haur danborrada: Ondarreta, La Salle-Berrozpe eta Aita Laramendi ikastetxetako ikasleek hartuko dute parte, alkate txikia eta herriko ordezkariak buru izango direlarik. Ibilbidea: Zumea plaza, Kaleberria, Kale Nagusia eta Goikoplaza.

19:15 Bakartxo & Joseba dantza eskolako ikasle gaztetxoek emanaldia Goikoplazan.

19:45 Klaap dantza eskolako ikasleen emanaldia Goikoplazan.

20:15 Master Class Fit Gipsy Goikoplazan.

22:30 Ragnaroc 8 kalejira piroteknikoa Juanita Alkain plazatik Goikoplazaraino.



BAIETZ GABE, EZETZ DA

JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!

EZ IZAN KONPLIZE



ANDOINGO UDALA



Ospe handia eskuratu du Foyonek plazatik plazara, baita sare sozialetan ere. FOYONE



Kutsu autobiografikoa dute Gabannaren letrek, eta emozioak ditu hizpide. SOFIA GABANNA

Musika urbanoa, larunbat gauean

Streaming eta internet bidezko askotariko plataformatako entzunaldiei erreparatuta, gazteen artean irismen handi duten bi artista erdaldun ariko dira larunbat gauean, Nafarroa plazan

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Ailegatze dirak Sanjuanak Euskal Herriko hainbat txokotara, baita Andoainera ere. Hala, musika ezinbesteko pieza da jai herrikoietan, kaleak girotu eta festazaleak dantzan ipintzeko. Urtero lez, itzal handiko artistak igaroko dira, aurtan ere, ohol-tzatik. Bada, inguruetako pla-

zetan hamaika bider agertu diren taldeez gain, badira egitarauan aski nabarmentzen diren bi izen: Sofia Gabanna eta Foyone. Nortzuk dira, baina?

Sofia Gabanna: ibilbide laburra eta arrakastatsua

22 urte besterik ez ditu Sofia Gabannak (Buenos Aires, 2000),

eta, jada, bere melodiek arrastoa utzi dute nazioartean. Nathy Peluso artista ezagunaren ahizpa da, eta rapa oinarri, orain gutxi kaleratu du bere lehen albuma, "Maté el amor". Zazpi abestik osatzen dute artista gaztearen lehen uzta, eta, haren esanetan, "zer pentsatua ematea" dute xede bere kantuek.

90. hamarkadatik etorritako rap klasikoa antzeman daiteke bere doinueta, eta makina bat artista lagun ondu du EP-a, Lupita's Friends ekoizpen-etxearekin: D'Angelo, Moob Deep, Ajax y Prox edota Marvin Gaye, besteak beste. Kutsu autobiografikoa dute bere letrek, eta emozioak ditu hizpide, abeslariak aitortu duenez, "bizipen itsusienetatik gozonenetara" bitarte.

Belaunaldi gazteek sutsuki jarraitzen dute artista, eta sare sozialetan duen inpakturari apur bat erreparatzearekin nahikoa

**SOFIA GABANNA
NATHY PELUSO
ARTISTA EZAGUNAREN
AHIZPA DA, ETA RAP
ESTILOA DU OINARRI**

da hortaz jabetzeko. Izan ere, Instagram sare sozialean, esaterako, 118 mila jarraitzailetik gora ditu, eta Cuentame kantuak YouTube, berriz, 2,8 milioi ikustaldi baino gehiago.

Foyone:

Andaluziako errimak

Grafitiaren bidez egin zuen salto Pedro Armando Navarro *Foyone* (Malaga, 1991) rap abeslariak hip hop mundura. 2011 urtean kaleratu zuen lehen lana, eta, harrezkero, geroz eta ezagunagoak bihurtu dira bere abestiak. Andaluziar izaera sutsuki defendatzen du bere errimetan, eta musika gizarte-salaketarako parada gisa ulertzen du.

Orotara, zazpi LP eta lau EP argitaratu ditu. Horien artean, arrakasta handia izan du "Rap-SinCorte" ikus-entzunezko proiektuak. Bertan, bi minutu inguruko inprobisazioetatik abiatuta, mundu osoan barrena zabaldu da bere musika: bere hastapenetatik 2021era bitarte, hamarkada oso batean, modu horretan egindako kantuak biltzen ditu albumak. Bidean gertu izan ditu Toteking Kase.O, Recycled J, Ajax y Prok, eta Ptazeta bezalako artistak.

Gabannaren pare, artista honek ere ospe handia eskuratu du plazatik plazara, baita sare sozialetan ere. Esate baterako, "RapSinCorte L" piezak bederatzi milioitik gora ikustaldi ditu YouTube.

**FOYONE RAP
ABESLARIAK
GRAFITIAREN BIDEZ
EGIN ZUEN SALTO
HIP HOP MUNDURA**



MUJKA TOLARETXIPI ANAIK
MAPFRE
ANDOAIN

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Eskola kalea, 8. ANDOAIN. 943 592 307. Faxe: 943 300 161. imujika@mapfre.com





Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.

Prestakuntza trinkoa: Cambridgeko azterketak ekainean eta uztaillean.

2022-23 ikasturterako matrikulazioa zabalik

Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoain
Ondarreta 7, behe. ANDOAIN. 943 300 839
www.andoainenglish.com

"Boskote gisa, debuta egingo dugu jaietan"

MIKEL MORENO KANTARIA

Iluntzeko 20:30ean igoko da estrainekoz Mikel Moreno abeslari andoaindarra oholtza gainera, bere lehen albuma aurkeztera: "Esnatu baino lehen"

Mikel Arberas ANDOAIN

Abeslari andoaindarrak esperientzia handia du oholtza gainean; izan ere, Kauta talde eza-guneko abeslaria izan zen denbora luzez. Oraingoan, "Esnatu baino lehen" albumarekin datorkigu, zortzi kanta biltzen dituen bilduma. Urteetako isialdia hautsiko du andoaindarrak. **Bakarlaria zarenetik jo al duzu kontzertu osorik ala debut bat dela esan genezake?**

Eskainiko dudana kontzertua estreinaldia da. Boskote gisa, debuta egingo dugu aurtengo San Juan jaietan. Diskoa kale-ratu ostean akustikoan emanaldi txikiak eman izan ditudala, baina talde soinuarekin eta

taldekideekin batera jaietakoa izango da lehen aldia.

Berezia izango da Sanjuanetan herriaren aurrean zure lana erakustea, ezta? Plaza gizona zara, baina sumatuko al duzu urduritasunik?

Urduritasuna nabaritzea normala da. Izan ere, zazpi urte daramatzat oholtza batera igo eta kontzertu bat eskaini gabe. Gauzak horrela, zerbait berezia sumatu dut azken asteetan, baina ezer neurriz kanpokoa.

Bestalde, presioa puntu hori antzeman dut. Boskotearen estreinaldia izanda gauzak ondo egin nahi ditugu. Halaber, andoaindarrengandik babes handia sentitzen dut, seguruenik, beste

herrietan nabaritutako ez nukeena. Zergatik? Lagunen, familiaren eta ezagunen artean joko dudalako. Gainera, ingurukoek gertutik bizitu dute disko honen sorkuntza-lana, eta babes handia izan dut. Igandeko kontzertua haiei eskaintzeko desiatzen nago eta seguru hunkigarria izango dela.

Denbora luzez egon al zara prestaketa-lanetan?

Prestaketa lanetan azken hila-beteetan soilik egon naiz. Izan ere, taldekideak ere musikariak direnez, mila proiektuetan murgilduta daude eta egutegi estua dute. Ez hori bakarrik, ia ezinezkoa zitzaigun kontzertuak lehenago ematen hastea.

Aitortu behar dut, diska kaleratzeak sorrarazi zidan nekeak ere eragina eduki duela eszenatokira buelta luze jotzearekin. Gainera, atsedean apur bat hartu nahi nuen; nire lana dut, ez naiz musikaz bizi eta, horrez gain, mila gauza gehiago ditut.



Mikel Moreno, Rikardo Arregi Kazetaritza Sarian. AIURRI

"ZAZPI URTE DARAMATZAT OHOLTZA BATERA IGO ETA KONTZERTU BAT ESKAINI GABE"

"IGANDEKO EMANALDIA LAGUNEI ETA SENIDEEI ESKAINTZEKO DESIATZEN NAGO"

Udan kontzertu gehiago lotuta al dituzu? Nola aurreikusten duzu etorkizuna, musikaren alorrean?

Kontzertuak lotzearen gaia ez da batere erraza. Batez ere, zuk zeuk bilatu behar dituzunean eta zerotik hasten zarenean. Arestian aipatu bezala, nire lana dut eta musika ez da nire ogi-

bidea. Hala ere, etorkizunean kontzertu gehiago emango ditudala esan dezaket, nahiz eta datak zehazteke dauden.

Esanak esan, sorkuntza-lana dut lehentasun; oraintxe bertan oso gogotsu nago, baina ezin diot nahiko nukeen denbora guztia eskaini.

Hariak ehundu, pertsonak konektatu



Bakardadeei aurre egiteko
Gipuzkoako estrategia
Etorkizuna Eraikiz



Zatoz Urnietara eta bat egin!

Ekainak 28 16.30 | Herriko Plaza
19.00 | Sarobe Antzokia

Izen ematea: hariak.adinberri.eus



Gipuzkoako
Foru Abundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Informazio Gune Morea Goikoplazan ipiniko dute, ekainaren 23 eta 24an. AIURRI

Eraso matxistei aurre egiteko protokoloa martxan dago

Puntu morea informazio-gunea Goikoplazan ipiniko dute. 112 aplikazioa, bestalde, erabilgarri dago

Erredakzioa ANDOAIN

“Baitez gabe, ezetz da” da herriko jaietan eraso matxistei aurre egiteko urratsen protokoloaren leloa. Eraso bat jasan duenarentzat zein eraso baten lekuko izan denarentzat pentsatuta dago batik bat, eta herriko eta auzoetako jaietan jarriko da abian. Santakrutzetan, zorionez, ez zen horrelako gertaera ilunik izan eta ea ez den ezer gertatzen has-tear diren San Juan jaietan eta Andoaingo auzoko jaietan.

Berdintasun Sailak udaberrian egin zuen agerraldian adierazi zuenez, “indarkeria matxistak galarazi egiten du emakumeok espazio publiko askatasunean gozatzea, deserosoak, mehatxagarriak edo arriskutsuak ere egiten zaizkigun egoerak sortuz. Normalean, bakarrik egiten diegu aurre egoera horiei, edo gure ingurune hurbilenaren laguntzarekin. Horregatik, uste dugu ez dagoela inolako tresna-rik soberan”.

"Puntu morea" Goikoplazan, ekainaren 23an eta 24an

Informazio-gune bat da, eta eraso sexistak prebenitzearen gaineko informazioa helarazteaz gain, erasoren bat jasanez gero hara joateko ere balioko du.

"BAIETZ GABE, EZETZ DA" DA ERASO MATXISTEI AURRE EGITEKO KANPAINAREN IZENA



112 aplikazioa. UDALA

112 Aplikazioa erraza eta eskuragarria

Larrialdi-zerbitzuei lotutako 112ak berarekin daukan aplikazioa ere gogorarazi zuten udaletxean egin zuten agerraldian. APPak “sexu-erasoa” edo “segurtasun-bidea” botoiak eskaintzen ditu, eta aplikazio hori nola deskargatu azaltzen duen esku-orria kaleratu dute. Tresna hori jaietan ez ezik, edozein momentutan ere erabili ahal izateko tresna da. 112ko APPak larrialdi-zerbitzuei abisatzeko aukera ematen du, deia aktibatzen duen pertsona urjentsiaz geolokalizatuz, baita ahotsik gabe ere.



Bus-zerbitzua. AIURRI

Gautxoria, gaueko bus-zerbitzu berezia

0,6 euro balioko du bidaia-txartelak. Erretiratuentzat zein lau urte azpikoentzat 0,2 euro

Erredakzioa ANDOAIN

Sorabilla, Karrika, Etxeberrieta, Calonge edota Buruntza-Leizotz aldean bizi diren festazaleentzat Gautxoria gaueko bus-zerbitzua erabiltzea abantaila handia izango da. Mugikortasunaren eta irisgarritasunaren ikuspegitik, zerbitzu baliagarria da. Gainera, bidaiariak non geratu eskatzeko aukera izango du, etxera bidean herritarrei segurtasuna eskainiz. Ostegunetik igandera martxan egongo da, aurreko urteetako ekimenari jarraipena emanez.

Udaletxearen atzealdean, Agustín Leitza kalean, egongo da Gautxoria bus-zerbitzua irteteko prest. Autobusa bete ahala abiatuko da eta geldialdiak nahieran aukeratu ahal izango ditu bidaiariak. Behin ibilbidea abiatuta, bide osoan ez da bidaiaririk hartuko.

- Ekainak 23 osteguna: 00:30-04:00.
- Ekainak 24 ostirala: 00:30-04:00.
- Ekainak 25 larunbata: 03:00-04:00.
- Ekainak 26 igandea 03:00-04:00.

00:30AN HASI ETA 04:00AK ARTE GAUTXORI HIRIBUS ZERBITZU BEREZIA MARTXAN IZANGO DA



AIURRI

Jaien eragina trafikoan

Sanjuanak ospatu bitartean Goikoplazako trafikoa eten egingo dute, zehazki ekainaren 23tik 27ra. Aierbe pasabidea berriro zabaldu zuenez, Extremadura kale inguruan bizi edo Urnieta eta Leizotz aldetik datozenentzat pasabide hori erabiltzeko gomendioa luzatu du Andoaingo Udalak.



AIURRI

Segurtasun-neurriak

San Juan jaiei amaiera emango dio Correfoc suzko pirotekniak. Udalak segurtasun-neurri bereziak hartzeko deia egin du. Ibilbidean igaroko diren dendei eta ostalaritza-guneei begira, toldoak biltzeko eta ate eta erakusleihotako kristalak paperarekin babesteko gomendioa luzatu dute. Ikuslegoari arropa bakeroa eta burukoa jantzita eramatea aholkatu diote.





Axeriak Ondarreta ikastetxean elkartu dira, aurtengo edizioa prestatzeko. AIURRI

Axeri-Dantza biziberritzeko entseguak egin dituzte

San Juan egunean, eguerdiko 12:00tan hasita, axeriak Goikoplazan ikusteko aukera izango dute andoaindarrek

Erredakzioa ANDOAIN

60 lagunetik gora elkartuko dira Axeri-Dantzan aritzeko. Bluxadun gorriak nabarmenduko dira, beraz, San Juan egunean. Saio nagusia eskaini eta gero bazkaria egingo dute Hogar Extremeño

elkartean. Axeriek esker ona adierazi nahi diote, erakutsitako eskuzabaltasunagatik. Iruñeko dultzaineroak lagunduta, goizean ekingo diote jaiari. Bazkalostean Distopia elektrotxarangarekin jarraituko dute festa.



AIURRI

Bakartxo & Joseba Eskolako gaztetxoek saioa

Tradizioan oinarritutako dantza emanaldiak ez dira faltako jaietan, ezta dantza garaikidea ere. Arabaolazaren dantza eskolak ibilbide oparoa osatu du dantza estilo ezberdinen zabalkundearekin eta dozenaka dira Ama Kandidako entsealekuan trebatu diren haur,

gazte eta helduak. Ekainaren 27an, astelehenarekin, Bakartxo & Joseba dantza eskolako ikasle gaztetxoek emanaldia eskainiko dute Goikoplazan. Hilabetetotan ikasitakoa jendaurrean erakusteko aukera polita da. Haur danborrada amaitu ostean hasiko da saioa.



URANGA

Klaap Dantza Eskolako emanaldia

Aurreko igandean eman zioten amaiera ikasturteari, Bastero Kulturgunean eskainitako saio bikoitzean. Zumea kaleko dantza-akademiak ikasle ugari bildu ditu urte hauetan, eta ikasturtean ikasitakoa etxekoan eta lagunarekin aurrean erakusteko aukera izan zuten.

Dantza garaikidearen alorrean puntako dantza piezak eskaintzen dituzte. Basteron ateratako argazkian ikus daitekeenez, dantza gogoko duten gaztetxo askoren arreta bereganatu dute. Ekainaren 27an saio berria eskainiko dute Goikoplazan, herriko jaietan.

ANDOAIN GF AKADEMIA

UDAKO IKASTARO TRINKOA

Aprobetxatu ahalik eta gehien zure denbora, gure esperientzia.
Hizkuntza maila guztiak prestatzen ditugu.

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK!

943 591 508
688 612 020

@academiagfandoain

www.academiagfandoain.com
Galardi 10, 1-A ANDOAIN



Peru aldera iritsi berria izango da honezkero, hiru hilabeteko egonaldia egitera. AIURRI

“Jaiolekuak baldintzatzen du neskato askoren bizitza”

LIDE SERRANO BELAUSTEGIGOITIA KOMUNIKAZIOA ETA ZUZENBIDEAN GRADUATUA
Hara eta hona ibili zalea da Lide Serrano urnietarra, eta mundu asko ezagutu du 24 urterekin; Peruko Piura eskualdera joango da astelehenean, hiru hilabeterako

Andoni Urbistondo URNIETA

Zaila da Lide Serrano jaioterrian harrapatzea (24 urte). Venezia-tik iritsi berria da turismo ja-sangarria sustatzeko proiektu batean parte hartu ondoren, eta, berehala, Perura doa Sanmielak arte. Nazioarteko Lankidetzan trebatua da, eta genero ikuspe-giko gabeziek lotu dute munduko emakumeekin lan egitera.

Nor zaitugu, Lide?

24 urteko urnietarra, Zuzenbidea eta Komunikazioan graduatua Deustuko Unibertsitatean. Nazioarteko Lankidetza eta Garapena master-a egin berri dut EHU-n, Hegoa erakundearen bitartez. Master-a garapen bidean dauden herrietan lan egiteko dago bideratua, zenbait proiektutan: genero gaiak, eraldakuntza sozialerako hezkuntza, ekimen ekonomikoak, ekologia soziala, giza eskubideak... Zuzenbidea eta komunikazioa ikasi nituen, baina ez nintzen erabat identifikatzen ez bata, ez bestearekin. Nazioarteko ikasketak oso erakargarriak egiten zaizkit, zuzenbide alorrekoak, batez ere.

Zuzenbidea egiten dutenek bulego batean egiten dute lan, eta komunikazio alorrekoak hainbat komunikabidean.

Praktikak abokatu bulego batean egiteak ez ninduen batere motibatzen, eta erredakzio batean egoteak ere sobera ez. 3. kurtsoan nazioarteko elkartasun praktikak antolatu zituzten Deustuko Unibertsitatean. Nire burua aurkeztu eta hautatu ninduten. Indira joan nintzen bi hilabeterako, eta han konparaketa ikerketa bat egin nuen herri hartako neskatoek zuten hezkuntza eskubideaz, landa guneta hiri gunetara, ze ezberdintasun zeuden bi eremu horietan.

Eta zer moduz Indian?

Asko markatu ninduen esperientzia hark. Gogorra izan zen, baina, era berean, etorkizunean arlo horretan jarduteko bultzada eman zidan. 4. kurtsoan praktika txanda berri bat egin behar zen. Mexikora joan nintzen, nire amona bertakoa baita.

Jauzi handia, Indiatik Mexikora, ezta?

Lotura handia dut Mexikorekin, eta Caritas Tehuacan elkartearen praktikak egitea lortu nuen. Nire amona Tehuacan hirian jaio zen. Bi hilabete eman nituen han, zuzendaritzan, haur eskolara joaten, elkarrizketak egin

eta beste... Ondoren Erasmus ikasketak burutu nituen Mexikoko Universidad Iberoamericana jesuiten unibertsitatean. Nazioarteko Lankidetza ikasketetan sakontzeko baliatu nuen epe hura. Argentinako irakasle bat ezagutu nuen, eta hark hautatutako bidetan sakontzeko arra sartu zidan.

Pandemiak hegoak moztu zizkizun apur bat, askori bezala.

Etxera bueltatu nintzen, pandemia batean, karrera bukatuta eta impasse egoera batean murgildu nintzen. Akademia batean aritu nintzen lanean, ingelesa eta frantseseko eskolak ematen, on-line ikastaroak egiten... EHUko Nazioarteko Garapen eta Lankidetza master-a egiteko hautagaitza prestatzen ere egon nintzen luze, eta hautatu ninduten. Mundu osoko ikasleak hautatzen dituzte, baina 25 lagun baino ez.

Master-ak egin ez ditugunontzat, zer dira, zehatz-mehatz?

Master-ak alor jakin batean espezializazioak lortzeko ikasten dira. Demagun gradu batean ikasgai orokorrak lantzen direla, bada, master batean, zehatzagoak. Zuk nahi duzun ikasketetan jartzen duzu fokua. Nire kasuan genero ikasgaia hautatu nuen, eta horretan ari naiz.

Orduan zer zara, zein ogibide, jardunbide duzula esaten diozu galdetzen dizunari?

Nazioarteko Lankidetzan jardun nahi duen norbait naiz. Nire ametsetako lana zein izango litzatekeen ere garbi dut: UN Woman erakundean, alegia, Nazio Batuen Erakundeko Emakumeen alorrean. Emakume eta neskatoen alde erronka handiak gauzatu nahi nituzke. Indiak neskatoen gaineko grina piztu zidan, jendarteko sektore zaurgarria direlako generoagatik eta adinagatik. Hori eraldatzeak motibatzen nau. Garapen bidean dauden herrialdeetako neskatoek hezkuntza, informaziorako eskubide gutxiago izango dute, eta ez dute munduko beste neskatoen garapen bera edukitzeko aukerarik izango. Indiako kasu asko gogorak dira benetan.

Nolakoak izan ziren Indian pasa zenituen bi hilabete horiek?

Human Development and Research Center izeneko erakundearentzat egin nituen praktikak, Alboan Jesuiten GKE-arekin harreman estua duena. Ahmedabad hirian egon nintzen, Gu-

yarat eskualdean, India mende-baldean. Slum edo auzo txiro batzuetara joan ginen, eta zortzi urteko neskatok dotore jantzita zeuden, makillajea eta guzti. Itzultzaileari galdetu nion zergatia, eta esan zidan egun horretan senarra lortzen zutela. Pentsa, zortzi urterekin 50-60 urteko gizaseme batekin ezkondu!

Esperientzia gogorra izan zen zuretzat?

Oso herrialde konplikatu da. Kasta sistema indarrean dago, berez, Konstituzioak debekatzen badu ere. Badago talde bat, "ukitu ezin direnak" deitzen zaie. Ez dizute bostekoa ematen, zikinak direla kontsideratzen dutelako. Paria batzuk bailiran. Han egin nuen proiektua, eta Deustuko Unibertsitatean txostena entregatu. Slum batean egin genuen elkarrizketa batean gertatu zitzaidana oroitzen dut bereziki. Zortzi urteko neskatok bat zen, Krishna, eta ingelesez hitz egin zidan, bere egoera kontatzen. Amets asko zituela, hegazkin pilotua izan nahi zuela. Gizonek erabat monopolizatzen duten lanbidea da hori Indian, eta Krishnarentzat ezinezkoa izango da bere ametsa lortzea, bere bizitza gizonen batekin ezkondu eta harekin egotera mugatuko baita ziurrekin. Hesi horiek hausten saiatu nahi nuke.

Zer ikasi zenuen Indian?

Irakaspen garrantzitsuena hau: jaiotzen zaren lekuak baldintzatzen duela zure bizitza. Indian gertatzen da, baina Mexikon ere bai. Han oso ohikoa da genero biolentzia, matxismo asko dago, bertako gizonak oso matxistak dira. Egoera, gainera, estrukturala da, hezkuntza kontua. Emakumeek etxea, senarra, familia bezalako balioak babes-



Venezia aldean ibili da hango erakunde ofizialekin turismo jasagarria lantzen. AIURRI

tu eta zaintzeko heziketa jasotzen dute etengabe, eta eraldaketa zaila da egoera horretan. Usteleria ere handia da, eta erreformak egitea oso zaila da, feminizidio asko daude. Horri buruz egin dut nire MAL delakoa, master amaierako lana, eta datuak beldurtzeko modukoak dira. Estatuak ofizialki jakinarazten dituen datuak x 6 edo x 7 biderkatzen dituzte GKE-en eta NBE-n txostenek.

Genero ikuspegia jorrazteko asmoa duzu, etorkizunean.

Bai. Indian eta Mexikon bizitakoak, eta orain egin dudak master-ak eraman naute genero ikuspegia lantzerako, haurren giza

eskubideak ere gustuko gaia badut ere. Jasagarritasunaren alorrean, edozein kontutan ari-tuko nintzateke gustura. Abendutik hona Valentziako IVE erakundearen aritu naiz lanean (Institut Valencia de la Edificación), Bilboko Into Destinations aholkularitza talde baten bitartez, turismo destino jasagarriak lortze aldera, eta klima aldaketari begira erresilientzia indartzeko. Europar Batasunak sustatutako ekimen da. Venezian egon naiz ez aspaldi, hango erakunde ofizialekin turismo jasagarria lantzen.

Eta orain Piura eskualdera zoaz, Perura.

"NIRE AMETSA NAZIO BATUEN ERAKUNDEKO EMAKUMEEN ALORREAN ARITZEA LITZATEKE"

"HIRU HILABETE EGINGO DITUT PERU ALDEAN, EGOAIZIA GKE-AREN ESKUTIK"

Master-a egiten dugun bitartean hainbat proposamen helarazten dizkigute GKE ezberdinetatik. Egoaizia Eibarko GKE-aren proposamena jaso nuen, Peruko eskualde hartan sexu eta ugalketa osasun-zerbitzuak jasotzeko aukera eta kalitatea hobetzeko proiektua garatzeko. Gai erakargarria iruditu zitzaidan emakumeen gorputza delako ardatza, emakumeak ahalduntzea bilatzen duelako. Bertako emakumeek beren gorputzarekiko ze eskubide dituzten jakin dezatela, horri esker beren eskubide bortxaketak saihestu ahal izateko.

Hiru hilabete egingo ditut han, baina dagoeneko bi hilabete daramatzat Egoaizia GKE-arekin aurre lanak egiten. Handik buel-tan, urrian, Donostiako Udalean hainbat ekitaldi antolatuko ditugu, Peruko emakumeekin testigantzarekin, han egin dugunaren emaitzak jakinarazteko gurean.

Zer nolako egoera topatzea espero duzu han?

24 urteko emakumeak, nire adin berekoak, hiru haurrekin, plangintza familiarraren gaineko informazioa ez dutelako, edo informazioa eskasa delako.

Jende gutxi pilatuko zuen zuk adina eskarmentu 24 urterekin.

Oso gustuko dut hara eta hona ibiltzea, pertsona eta kultura berriak ezagutzea. Kultura ezberdinekin konplizitatea bilatzen dut, eta horrek aberastu egiten nau asko.

"OSO GUSTUKO DUT HARA ETA HONA IBILTZEA, PERTSONA ETA KULTURA BERRIAK EZAGUTZEA"

Zer esaten dizute kuadrillako lagunek?

Nekaezina naizela. Mapa munda bat daukat tatuatuta bizkarrean, eta antzera jarraitu nahi nuke, proiektutik proiektura jauzika. Beti bueltatzen naiz etxera, Euskal Herrira, gure herria delako, baina atzerrian ere gustura ibiltzen naiz. Ingelesa hitz egiten dut, frantsesa ere bai, moldatzen naiz. Arabiera ere ikasi nahi nuke, asko erakartzen nau mundu horrek. **Genero berdintasuna utopia bat al da egun?**

Bai, erabat. Lan handia dago egiteko oraindik.

Zein arazo konpondu beharko litzateke azkarren zure ustez?

Genero biolentzia. Hori galarazten saiatu behar dugu. Gure artean dago, eta areagotu egin da pandemia garaian, baina ez gara jabetzen. Ez dugu ikusten ikusi nahi ez duguna. Genero biolentzia ez da zigor fisikoa bakarrik, hizkuntza mailako biolentzia ere badago. Hezkuntzarekin konpondu behar den egoera da. Txikitatik umeak berdintasunean hezten badira, nagusiak direnean ez dira botere patriarkalak eragindako jarrrerak gertatuko.

Gutxietsita al dago genero indarkeria?

Bai. Genero perspektibak bizitzako alor guztietan egon behar du, eta ez dago: enpresa munduan, hezkuntzan, parrandan...

Feminismoa hitza entzun eta gizonetzko asko asalatu egiten dira. Zergatik?

Eraso moduan hartzen dutelako. Feminismoak onena nahi du emakume eta gizonentzat, baina hori ez da ulertzen. Denok gaude generoaren ontzian, eta denok egin behar dugu lan elkarrekin.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugarte Mendia.

idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.

publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urdeta).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.

Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Txapel preziatua Urriza eta Zubirirentzat

ERREMONTEA Imanol Ansak eta Aritz Juaneneak ezin izan zuten Sagardoaren txapelketako finala irabazi Javier Urriza eta Aritz Zubiri bikotearen aurka (30-28). Beste behin, Ansa urnietarra txapela janzteko atarian geratu da

Mikel Arberas ANDOAIN

Finaleko lehen tantoak bikote faboritoak egin zituen, baina azkar batean berdindu zuten Ansak eta Juaneneak. Hamaika tantora arte norgehiagoka oso orekatua izan zen; bata bestearen atzetik etorri ziren berdinketak. Atsedendialdiaren ostean, botileroen laguntzarekin, partida orekatu egin zen berriro ere, edonork irabaz zezakeen. Arestian aipatutako desabantaila murriztea lortu zuen urnietarrak eta berdinketa eskuratu zuten (19-19). Alabaina, Urriza eta Zubiri esperientziadun pilotariak dira eta kantxan zuloak bilatuta hiru tantoko aldea eskuratu zuten (24-21). Finalaren azken txanpan sartzen hasi ziren bi bikoteak, ikusleen txalo zaparrada artean. Bigarren atsedendialdiaren ostean, garaipena Urriza handiaren eskuetan zegoela zirudien arren (26-22), Ansak eta Juaneneak hortzak estutu, eta abantaila murriztea lortu zuten ((27-25). Tentsioa izugarria zen memento horretan



Astelehenean egin zen finala. GALARRETA

Galarretan. Gorridunek berriro ere abantaila hartu eta 29. tantora arte jauzi egin zuten. Partida erabakita zegoela zirudien, urdinek hiru tanto egin zituzten garaipenetik gertuago jartzeko (29-28). Hala ere, azken tanto erabakigarria Urrizak eta Zubirik egin zuten (30-28).

Urriza eta Zubiri eskarmentu handiko pilotariak dira, eta hala

erakutsi dute urte osoan. Iazko txapeldunak berriro jantzi du txapela preziatua eta Ansa iaz bezalaxe azpitxapeldun geratu da. Urnietarrak aukera gehiago edukiko ditu aurrerantzean.

Pilotarien maila handitzen doa, baita kirol honekiko afizioa ere. Frontoia goraino bete zen eta asko izan ziren etxetik jaialdiko finala jarraitu zuten zaleak.



Hiru bikoteak Tolosako podiumean. EGURSPORT

Sekulakoa egiten ari da Arruti, bere lehen denboraldian

HERRI KIROLAK Urrezko Aizkolaria eta Emakumeen Binakako Euskal Pentatloia irabazi ditu jarraian

Xabier Lasa ANDOAIN

Nerea Arruti urnietarra aurtengo denboraldian murgildu da herri kirolean eta amestu ere egingo ez lituzkeen lorpenak eskuratu ditu oso denbora laburrean: Urrezko Aizkolarien txapela lehenbizi Azpeitian ekainaren 8an, eta Amalur Arbelaiz oartzuarrarekin batera Emakumeen Binakako Euskal Pentatloi txapela Tolosan, joan den larunbatean.

Hona azken sailkapena:

1. Nerea Arruti-Amalur Arbelaiz 24:01.
2. Garazi Arruti-Lucia Orbe 26:52.
3. Karmele Gisasola *Zelai III*-Uxue Ansorregi 27:39.

Arrutik eta Arbelaiztek egundoko erakustaldia egin zuten Tolosan, eta bost minututan ondu zuten iazko txapeldun Garazi Arrutik eta Lucia Orbek

egindako marka. Harria jasotzen, txingan, giza proban, aizkora eta korrika aritu behar izan zuten, honako lanetan zehazki:

- Harri jasotzea: 63 kiloko bola, 20 jasoaldi.

- Giza proba: bi plaza 250 kiloko harriarekin.
- Aizkora: 65 ontzako bi egur.
- Txingak: sei plaza.
- Korrika: bi kilometro (20 itzuli zezen plazari).

Lehenbiziko proban, harria jasotzen, Orbek eta Arrutik osatutako bikoteak hartu zuen aurrea. Giza proban, oster, Arruti eta Arbelaiz izan ziren azkarrenak, eta hortik aurrera lehen postuari aisa eutsi zioten. Batik bat aizkora lortu zuten alderik handiena (01:15). Irabazleak txingekin hasi zirenerako, beste bi bikoteak bigarren enborra-ekin lanean ari ziren oraindik.




GAZTELEKU

Luxuzko gonbidatuak azken saioan

ESKUPILOTA Aurreko ostiralean Gazteleku pilota elkarteko kideek ikasturteari amaiera eman zioten, eta azken saiora gonbidatu bereziak hurbildu zitzaizkien. Alde batetik, Gaztelekuko pilotari izandako Iker Elizegi. Eta, bestetik, Iñaki Artola alegiarra. Gaztelekuk

eskerrak eman dizkie haur eta gaztetxoak zuzendu dituzten begiraleei: "Eskerrik beroenak urte guztian zehar entrenatzaile gisa aritu direnei". Uda dator aurretik, eta besteak beste pilotazaleek Kontzejupeko eta Gaztetxeko txapelketekin gozatu ahal izango dute.





Julen Gaztañaga, Mikel Arberas, Xabat Amilibia eta Eneko Beloki ariko dira finalean, San Juan egunean. AIURRI

Kontzejupeko finala erabakita geratu da

ESKUPILOTA Ekainaren 24an jokatu dira Kontzejupeko 3. eta 4. postuak eta finala, Axeri-Dantza amaituta

Erredakzioa ANDOAIN
Aurtengoa hamargarren edizioa izango da Kontzejupean. Ikusmira handia sortu ohi izan du,

frontoi berezia izanik ez-ohiko jokamoldea edukitzeagatik. Egurdiko 13:15ean hasiko dira partidak; lehenik 3. eta 4. pos-

turako norgehiagoka jokatu da eta, ondoren, finala. Lehen partida, Jon Beldarrain-Beñat Salbador eta Eneko eta Iker Uria anaien artekoa izango da. Finala Eneko Belokik eta Xabat Amilibiak Julen Gaztañaga-Mikel Arberas bikotearen aurka jokatu dute. Aurtengo edizioan zazpi bikotek eman dute izena, eta partaidetza aspaldiko gazteena izan da.

Herriartekoan txapel-dun-orde

PALA Oreretaren aurkako finala oso zaila aurreikusi zen, eta halaxe izan zen. Olaberria frontoian kantxaratu eta partidak berdinduta egon ziren arren, andoaindarrek ezin izan zituzten aurkariak gainditu. Iradik eta Ponce (35-27) larruzko paletan, eta Altuna-Rekalde gomazkoan (40-33) izan ziren Andoain herriaren ordezkariak.



GAZTELEKU



Igerilakiak Donostiako Paco Yoldi igerilekuan. BURUNTZALDEAKT

Eskualdeko igerilariak Gipuzkoako Open Sarian

IGERIKETA Guztira 28 marka pertsonal eskuratzea lortu zuen Buruntzaldea IKT taldeak

Erredakzioa ANDOAIN
Ekainaren hasieran Buruntzaldea IKT taldeko igerilari talde handi samarrak Gipuzkoako Open Sarian parte hartu zuen. Zehazki, hauek izan ziren kluba ordezkatu zutenak: June Lopez, Iker Gorostegui, Garazi Etxeberria, Miren Sarobe, Unai G. Somovilla, Nora Imaz, Saioa Elola, Izaro Audikana eta Alba Escribano.

Donostiako Paco Yoldi igerilekuan parte hartzeak dituen xehetasunak azaldu zituen klubak: "Askorentzat igerileku luzean lehiatzen zuten lehen aldia izan zen eta zalantza edo ezjakintasun handiarekin zeuden arren, gogotsu egin zioten aurre erronka berri horri. Azkenean, denen artean hogeita zortzi marka pertsonal ezartzea lortu zuten eta horrez gain, lau taldekide izan genituen finaletan parte hartzen: Garazi Etxeberria, Unai

G. Somovilla, Nora Imaz eta Izaro Audikana". Izaro Audikana andoaindarrek bular estiloan, 100 metrokoan, bere marka onena pertsoal egin zuen Donostia-ko igerilekuan: 1:29:00.

Denboraldiaren amaiera
Aurreko asteburuan Lasarteko saria ospatu zen Maialen Chourraut igerilekuan. Larunbatean taldeko txikienek denboraldiko azken txapelketan parte hartu zuten. Eta igandean berri, alebin, infantil, junior eta absolutu mailakoek. Klubak denboraldi amaieran eskertza adierazi die erakundeei, babesleei eta taldekideei: "Alebin, infantil, junior eta absolutu batzuk Gipuzkoako, Euskal Herriko zein Estatu mailako Txapelketetan lehiatzeko entrenatzen jarraitu behar duten arren, gainontzeko haur guztiek jada saio hauekin amaitu dute denboraldia".

65 sukia

LIGAXKA

EKAINAK 27 ASTELEHENA | 18:00ETATIK AURRERA
GALARRETA JAI ALAI (HERNANI)

ALDABE · BARRENETXEA IV

VS

URRIZA · LABAKA

ANSA II · AZPIROZ

VS

EZKURRA II · JUANENEA

ORIA MEMOI | ERREMONTEA BIZIRIK | ERREMONTARI

PAPELERA GIPUZKOANA DE ZUÑIGA, S.A. | GIPUZKOA TURISMOA

Orona

AIURRI

POSTONTZIA

EH BILDU
URNIETAKiroldegi berriari
ekarpenak

Urnietako kiroldegi berriak baditu gabezia batzuk eta oraindik lanak erabat bukatu baino lehen, komenigarria ikusten dugu aipatutako puntu beltz horiek jasotzea eta publiko egitea.

- Aldagelak: Komuna barruan. Higiene beharrei intimitate bermez aurre egin ahal izateko; haurrentzat pardelak aldatzeko lekua; entxufeak lehorgailuak edo antzekoak erabiltzeko (orain bi daude aldagelako), ile lehorgailuak (bakarra dago orain aldagelako), zakarrentzi desberdinak. Horia bakarra dago orain; dutxetan xaboiak uzteko apalak, orain lurrean utzi behar dira; ez dago leihorik edo aireztatze naturalik. Hau ezinbestekoa ikusten dugu.
- Segurtasuna: Igerilekutik aldageletarako bidea irristakorra da bustia dagoenean. Tratamentua beharko luke.
- Makina gelak: Makina piloa badago, baina leihorik ez. Aireztatze naturalik ez dagoenez, emergentziako atea zabalik uztea erabaki du egun hauetan erabiltzaileak. Aireztatze egokia ezinbestekoa dela garbi erakutsi digu pandemiak; Ispiluak: Ariketak egitean zuzen egitea edo ez, ispiluek erakusten digute.
- Igerilekua: Kanpotik solarium guztia ikusten da. Honek intimitatearen babesik ez du ematen eta itxidurak kanpotik ikusten ez dena izan beharko luke; "Jan-edanen" postua: ez du inork hartu eta ez zaio irtenbiderik eman. Saiakera egin beharko litzateke.
- Padel pistak: Sarea falta du
- Beste kirolak: Badira urnietarrak ping-pong eta antzeko kirolak egiten dituztenak. Hainbeste metro kuadrok ematen dute galdeketa bat egin eta interesekoak diren jarduera gehiago jartzeko.

HITZORDUAK

HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus



San Juan suaren ospakizuna 2019ko edizioan. AIURRI

URNIETA San Juan bezpera

Akelarrea eta Txistulari Bandaren eskutik, udako solstizioaren ospakizuna. 22:00tan ospakizunaren hasiera, eta 22:15etan Akelarrea. Ondoren sua piztuko da 22:30ean eta jarraian Txanbolin txistulari bandarekin erromeria. *Ekainak 23, osteguna. 22:00tan hasita Plazido Muxika plazan*

XXX. KALETXIKITARRON BAZKARIA

Menua

Zainzuriak

Otarraixkak eta Itsaski Pastela

Masailak saltsan

Postrea

Uztailak 3

Salgai:
Carniceria
Patxi
harategian

HELIDUAK 20€
BAIDURAK 10€

Idea:
Ekainak 29
Junio



PSE-EE eta EAJ-PNV alderdietako ordezkariak, taldeko argazkian. AIURRI

Hiru urteko lanaren balorazioa
egin du koalizio gobernua

Maidar Lainez alkateak eta Marijose Izagirre alkate-ordeak balorazio ona egin dute

Erredakzioa ANDOAIN

Agintaldi honetan koalizioan lanean ari dira PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiak. Bien arteko baturak gehiago osoa ziurtatzen du, 17 zinegotzietatik 9 dituztelako. Lau urteko zikloaren azkenean sartu da koalizioa eta azken hiru urteetako balorazioa egiteko aurkezpen ekitaldia egin zuten. Maidar Lainez alkateak irudi indartsua zabaldu nahi izan zuen bere adierazpenean: "Indartsu eta oso aktibo sentitzen gara. Geratzen zaigun urte honetan, Andoain hobetzeko eta andoaindarren ongizatea ekarriko duten jarduerak eta zerbitzuak martxan jartzeko lanean jarraituko dugu egunero".

Mari Jose Izagirre jeltzalea alkate-ordeak bat egin zuen analisi baikorra egiteko garaian; "Kaltatezko zerbitzu publikoak indartzea da gobernuaren ekin-tza gidatzen ari den premisa".

Egitasmoen zerrenda

Hedabideetara zabalduko oharrean egindakoaren zerrenda aurkeztu zuten. Besteak beste, haurrei tratatu ona emateko tokiko planaren garapena, jaietan erasoak saihesteko protokoloa landu da, Pump track zirkuitua sortu da aire zabaleko aisialdiko kirol-eskaintza zabalduz, biribilgune bat eraiki da Rikardo Arregi eta Agustin Leizako bidegurutzean, "Ferrata Bidea" zerbitzua martxan jarri da, "Parketarrak" egitasmoa abian jarri da eta "Andoain Gida" aurkeztu da.

Epe erdira aurkeztuko dituzten egitasmoen artean daude Miranda pasealekuan ur-parke berri bat eraikitze lanak adjudikatzea, Allurralde kiroldegia handitzeko lizitazioa berriro ateratzea, Urigainen bizikletak garbitzeko puntu berri bat ezartzea...



andoainDARRA
euskaraz



Larunbatean izena eman zuen herritar taldean Juanita Alkain plazatzxoan zegoen postuan. AIURRI

"Piriniotako bidea", Gure Eskurekin

Uztailaren 2an bus batek Oartzun aldeko Munagirre mendialdera gerturatuko ditu Andoaingo eta Urnietako partaideak. Arratsaldean irtengo dira eta gauerdiko 00:30tan itzuliko dira. Afaria bakoitzak berea eraman beharko du. Ezinbestekoa da linterna eramatea. Gureesku.eus gunearen bidez eman daiteke izena.



AIURRI

KOMUNITATEA

AEK EUSKALTEGIA ANDOAIN

Aurtengo ikasturteak eman du berea



AIURRI

Ostegunekoa ez zen egun aproposena izan agian, baina giro onean elkartu ginen ikasturteari amaiera emateko, bai mintzalagunak, bai euskaltegiko hainbat ikasle ere. Loatzko Musika Eskolako ikasleek lagunduta, kaleak alaitu genituen. Ederki ibili ginen, eta beroari aurre egin genion elkarren konpainian. Aurtengo ikasturtea polita izan da, eta dagoeneko hurrengorako prestatzen hasiak gara. Badakizue, euskarara gerturatzeke edo euskaraz bizitzen jarraitzeke, zatozte gugana!

Euskaraldia abian jartzeko ekimenaren aurkezpena

Andoaingo ekimenaren aurkezpen ekitaldia datorren ekainaren 28an izango da, Basteron

Erredakzioa ANDOAIN
Larramendi Bazkunak euskaltzaleak deitu ditu, datorren asteartean egingo den aurkezpen ekitaldira hurbildu daitezten. Uda igarota abiatuko da batzorde eragilea, eta Basteron egingo duten hitzorduan hastapen lanen berri emango dute. Dinamizatzailer berria aurkezteko aukera baliatuko dute, bide batez. Ohi bezala, Udaleko ENBaren babesarekin burutuko da euskararen aldeko ariketa kolektiboa.



Ekainaren 15eko ekitaldia. AIURRI

Alberdiren urteurreneko ekitaldia, San Juan plazan

Urteak igarota ere, urnietarraren heriotzaren bertsio ofiziala ezbaian jartzen jarraitzen dute

Xabier Lasa URNIETA
Juankar Alberdi Martirena (1958-1988) urnietarra asistentzia ezaren ondorioz Herrera de la Manchako (Ciudad Real) bihotzkeoak jota hil zela espetxean salatzen jarraitzen dute Urnietan. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzak biktimatatzat ez hartzea salatzen dute ere. Oroimenezko ekitaldian senitartekoei babesa adierazi zieten.

Bertsioak
Joxe Fermin Argiñarena bertsolariak bi bertso abestu zituen: *Gaurko egunak herritarrontzat oroitzapen asko dazkar. Heriotzaren berri jakin da denok egin gendun dar-dar batzuk eroso guretzat berriz beti pendiz edo malkar. Bañan arnasik degun artean ez degu aztuko juankar.*

Ta-heriotza naturala zan saldu ziguten holaxe. Bañan kartzelan naturaletik gutxi dago bai horixe. Armak isilduz, kartzelak hustu espero gendun belaxe, konpon bideak geldirik daude erloju oi bezelaxe.

Azken hori elizako ordulariari egindako aipamena izan zen, urteak baitira geldirik dagoela.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Elisabet Gallo Aizpurua
Zorionak, ekainaren 28an urteak beteko ditu eta laster familia handituko duzue. Muxu handiak etxekoan partetik. Ondo ospatu.



ANDOAIN
Aritz Irazu Roman
Ekainaren 29an 9 urte beteko ditu gure etxeko txiki-handiak. Muxu handiak etxekoan partetik. Ondo ospatu.

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnietak: 943 006 680.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

MERKATU TXIKIA

MINTZALAGUNA


Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza edo mintzalagun bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

ENPLEGUA

Pertsona euskaldun bat behar dugu Lanbroa Taberna lan egiteko. Interesatuak kontaktuan jarri lanbroataberna1@gmail.com-en edo 659 039 922 telefonora deituta.



Eskelak Aiurriin: 90 euro



Agustin Leitza kalearen hasieran dago Stop liburudenda. AIURRI




Gorostidi Kale Nagusian, udaletxetik gertu dago. AIURRI



Etxeberria harategia, Kale Nagusian. AIURRI



Betilore lorelenda, Kale Nagusian. AIURRI



Izea lurrindegia Juan Bautista Erro kalean. AIURRI



Kaleberrian Bastero ondoan dago Ormendi Kirolak. AIURRI



Durazno arropa-denda, Arteta kalean. AIURRI

Panorama beltzaz ohartarazteko ekimena

"Hemen gaude" kokapena zehazten duen ikonoa ezagun egin da internet bidez. On line salmentak dira tokiko merkatarien mehatxuetakoa. Herrian bertan erosketa egitearen garrantziaz ohartarazko kanpaina deigarria egin zuen Salkinek, aurreko ostiralean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoainen tokiko merkataritzan ibilbide oparoa eta Salkin elkar-teen ibilbidean parte hartzea izan duen dendari batek Aiurri-ri aitortu dio maiatza hilabete eskasa izan dela, salmentei dagokionez. Ekainean zerbait hobetu dira, eta bonoen eskaintzak izan du eragina hobekuntza horretan. Mundu mailako krisiek eragina dute erosleen poltsikoan,

eta dagoeneko mehatxu ziren beste aldagaiei gehitu zaizkie. Tokikoa gertuko merkataria da, salerosketan zuzeneko harreman pertsonala eskainiko dizun aukera bakarra. Adinean gora doazen merkatarien atzetik ez da segida ikusten eta adinean sasoiko aritzeko aukera dutenak panorama ilun samarra dute. Erosleen kontzientzian eragiteko kanpaina izan zen, ostiralekoa.